

KANTI KOMENTARIOAK (ETA 2)

5. Kant pasatuko da filosofiaren historiara, nire iritziz, terminologia aberasgarria oso teorizatu duelako. Eskolastikakoa osatua da eta aberastua terminologia berriarekin, gero teorizatzeko baliagarria izango dena, zeren terminologia zientifikoa baita, filosofikoa, filosofia lehenean batez ere aplikagarria. Eta hori berrikuntza eta aurrerapena da Kanti zor dioguna.

Iker dezagun terminologia hori nola doan desarroilatzen eta garatzen. Hara zer dioen aurrerago:

“En todos los juicios en los que se establece la relación entre un sujeto y un predicado (no considero sino los juicios afirmativos; pues lo que diré de ellos se aplicará seguidamente con toda facilidad a los juicios negativos) , esta relación es posible de dos maneras. O el predicado B pertenece al sujeto A como algo que es contenido implícitamente en este concepto A, o B está enteramente fuera del concepto A, aunque esté, en verdad, en conexión con él. En el primer caso llamo al juicio analítico, en el otro sintético. A causa de ello los juicios (los afirmativos) son analíticos cuando la unión del predicado con el sujeto es establecida en ellos mediante identidad; pero deben ser llamados juicios sintéticos aquellos en que esta relación es pensada o establecida sin identidad.”

Ia komentariorik ez du behar parrafo honek. Nik esango nuke ezen, adibidez, definizio bat, judizio analitikoa izango li-

tzatekeela, baina, ostera, deskripzio enpiriko bat, judizio sintetiko ez osatua.

Pixka bat aurrerago honela dio:

“Puedo, de antemano, conocer el concepto de cuerpo analíticamente mediante los caracteres de extensión, impenetrabilidad, figura, etc., todos ellos supuestos al pensar en el concepto. Pero si ahora extendiendo mi conocimiento y vuelvo mis ojos a la experiencia de la que he sacado este concepto de cuerpo, encuentro también la pesantez siempre unida a los caracteres precedentes. La experiencia es pues esta X que está fuera del concepto A y sobre la cual se funda la posibilidad de la síntesis del predicado B de la pesantez con el concepto A.

Pero, en los juicios sintéticos a priori, estoy enteramente privado de este medio. Si debo salir del concepto A con objeto de mediante él conocer otro, B, como unido con él, ¿en qué podría apoyarme y qué es lo que haría la síntesis posible, puesto que ahora no tengo la posibilidad ventajosa de orientarme en el campo de la experiencia?”

Deskripzio enpiriko batean, deskripzio zientifikoa, adibidez, judizioak sintetikoak dira. Hori garbi dago. Baina kasua diferentea da judizio sintetikoa a prioristikoa delarik. Zeren a priori dena esperientzia material orotik gain baitago, unibertsaltasunaren eremua da, eta ondo egina dago Kanten galdera, hau da, nola orientatuko naiz judizio sintetiko bat egin nahi dudanean esperientzia materialetik gainetik nagoenean, a prioristikotasunean nagoenean?

Aurrerago honela dio:

“Se oculta pues aquí cierto misterio...”

Eta nahi du misterio hori argitu, eta matematiketan, adibidez, aurkitzen ditu judizio sintetikoak a priori. Baina hor ni ez naiz geratu behar. Nire interesa ez da matematika garbia, materiatasun osoz abstraitutako terminoekin operatzen duena, niri interesatzen zaidana da mundu materiala, kosmos materiala.

Ea hor posible diren judizizio sintetikoak a priori, bereziki. Eta Kanti jarraituko diot hortik doanean, horretarako berriro irakurtzen jarraitu behar badut ere obra guzia. Ez dut alferrikako lantzat hartzen.

6. Hurrengo parrafoetan Kant hasten da bere ezagutzaren teoria desarrolatzen. Honela dio batean:

“... nuestro objeto no es aquí la naturaleza de las cosas, tema inagotable, sino más bien el entendimiento que juzga acerca de la naturaleza de las cosas...”

Eta entendimentu horrek badu bere baitan halako sistema bezalako bat osatua ezagutza a prioristikoez, eta horiek egiten dute posible ezagutzea mundu materiala, ezagutza bat agorre-zina dena bere zabalera infinituan.

Esaten du Kantek, errepikatuz, ezen gure ezagutza enpirikoa posible egiten duen filosofia tranzendentalak, arrazoi garbiaz diharduena, ez duela, ezagutza a prioristikoez osatua dagoenez, ez duela eduki behar ezer enpirikorik. Nahiz eta ezagutza a prioristiko horiek posible egiten duten ezagutza enpirikoa.

Kantek badu esaten nola badauden sensibilitatearen baldintza a prioristikoak, eta hori bere ezagutzaren teoria da duda barik. Hor nik oraingo ez dut nahi sartzerik, nahiz eta zapuztua ikusten dudan nere lehen helburua, zeina baitzen Kanten liburuaren komentarioa. Liburuaren gehiena ezagutzaren teoria hori garatzea denez, amaitua ikusten dut, alde hortatik nire komentarioa.

7. Niri interesatzen zaidana ez da Kanten ezagutzaren teoria, osagarria dena eskolastikan Aristotelesena komentatuz osatu zirenekin. Niri interesatzen zaidana da Kantek egindako galdera, esperientziaren eremuan orientatzeko posibilitaterik gabe

nola da posible judizio sintetiko bat a priori esperientzia materialaren arloan? Nonbait badugu halako oinarri a prioristiko bat gure mundu materialaren ezagutza enpirikoa posible egiten dutenak, baina ezagutza enpiriko orenen gain dagokeenaz, unibertsaltasunaz, ba al da posible zerbait ezagutzea?. Kantek berak, liburuaren hasieran honela dio:

“ La razón humana tiene este destino singular, en un género de conocimientos, el estar abrumada por cuestiones que le serían imposible evitar, pues le son impuestas por su propia naturaleza, pero a las que no puede responder, porque sobrepujan totalmente el poder de la razón humana.”

Lehen edizioari egindako prefazioan dio hori gure filosofoak, eta galdera hori da deskubritzen duena ezinezkoak direla judizio sintetikoak a priori kosmos materialean. Badago halako ezagutza a prioristiko bat posible egiten duena perzeptzioa mundu materialaren, eta hortik posible izatea zientzia materialista, baina ezinezkoa da hortik harutzago gehiagorik. Hori da Kanten deskubrimendua. Ez dizkio metafisikari sustraiak mozteten (galdera horiek beti egingo ditugu), baina adarrak behin eta berriro moztuko dizkio.

8. Esperientzia material orotik gain ba al dago zerbait?. Unibertsaltasuna, ezagutza unibertsala, esistitzen al da?. Esistitzen baldin bada orduan jada posible da judizio sintetikoak a priori egitea, egia da, baina inork ez du ikasten ezer esperientzia materialaz gainerik. Eta hori egia da, eta Kantek terminologia berria formulatu du, aurrerapena dena aurrekoarekin, zeren forma inmutableen kosmos goragoko hura, platonikoa, ez baitago demostratua, eta galdetzerakoan ea posible diren judizio sintetikoak a priori, galdetzen du argiago ea posible den kosmos goragoko bat, ezagutza a prioristikoaren mundua, ezagutza unibertsalaren mundua, eta hortik osatzen ahal lirateke, esistitzera, judizio sintetikoak a priori. Baina ez da hor ezer ageri, dirudienez, guk esperientzia materiala besterik ez dugu

eta. Eta Kanten filosofia mugatzen da ezagutzaren teoria bat garatzera bere terminologia berriarekin, baina ez gehiagora, hortik harutzago, hortik metafisikara, bidea moztuta dago erre-medio barik. Eta terminologia berri horrekin bururatzen du bere lana, zeina baita arrazoi garbiaren kritika, hau da, arrazoi garbia ezagutza unibertsal a prioristikoa bada, orduan hor ez du gure filosofoak ezer ikasten.

9. Nik, ostera, badut ezagutzen errebelazioaren historia, eta ezagutza historiko hori ez dut ezkututzen, eta historia horretan Jesus deskubritzen dut mirariak egiten, signoak, eta mirariak analizatuz ikasten dut nola esperientzia material ororen gainetik ezagutza a prioristikoaz Jesusek badituela judizio sintetikoak a priori egiten, ezagutza a prioristiko hortatik nonbait jenez. Edukiz bide enpirikoetatik, zientifikoetatik, ezinezkoa dena, hau da, ezagutza unibertsala, zeinak indikatzen baitit beste kosmos goragoko baten esistentzia. Non ezaguna den bere perfekzioan kosmos materiala, eta hortik gobernatu ahal izatea, mirariak erakusten duten moduan. Eta ni ez noa zuzenean bide horretatik metafisika baten posibilitatea demostratzera, hori izan beharko litzatekeen arren nire zeregina filosofo bezala, ezta filosofia lehena bere hastapenetako prestigiora jasotzera, eta bai banoa teologia katolikoaren egiazkotasuna demostratzera, zeina baita eginkizun perfektuagoa, bere barnean beste guztia baitu konprenitzen.

10. Esaten da, bai, enpirismo ingelesaren bururatzea Hume dela, baina nik gehiago ikusten dut bururatze hori Alemanian, konkretuki Kanten filosofiaren baitan. Bere terminologiarekin bururatu egiten du besteek hasitakoa, eta ez du posible ikusten esperientzia material ororen gain dagoen ezagutza a prioristikotik inolako judizio sintetikoak a priori egiterik. Baina hori egia den arren kosmos honetan, Kantek alde bat uzten du errebelazioaren historia, batez ere errebelazio horren historia-

ko pertsonaia nagusia, Jesus, eta Jesusek Berak osatzen ahal zituen, nahierara, halako judizio sintetikoak a priori, ezagutza sobrenatural batetik osatuak, demostratuz horrela Bere hizpide mirarizkoarekin badela egiazkoa Kantek ikasten ez zuena. Kosmos honetan beti misterio zaigun arren ezagutza unibertsal horren egiazkotasuna.

11. Kanten kritika guztiz egiazkoa izango zen gertatu izan ez balitz errebelazioaren historia historia unibertsalaren baitan, eta errebelazio hori beti lagunduta ageri da signoez, eta signoen estudioak, Kanten terminologia da dugun azkena, hoberik, zehatzagorik, litekeena bada ere, eta signoen estudioak erakusten digu badela Jainko on bat (Bera da on den bakarra), eta beraz Kanten kritika inteligenteak topo egiten du signo hauekin, eta derrigortuak gaude estudiantzera, eta ondorioak ateratzera. Eta Kanten filosofia izango zen ondo asmatua ez balitz izango ignoratu dituelako datu historiko inportanteak, filosofiaren eta zientzien estudiogai ere direnak. Eta ideia inmutableen teoria alde bat lagata, parmenideismoa ere alde bat lagata, bada posible zimentatzea solidoki metafisika signo horien estudioaren gainean, zeintzuek seinalatzen diguten Zeruetako Erresumaren esistentzia. Kosmos material honetan errealitate guztiz misteriotsua, bai, baina guztiz egiazkoa ere. Behintzat testimonio historiko horiei kreditua ematen dietenen artean.

Roman Garmendia